



## CHRISTIANE'REN ESKUTITZA

Aita Rhaner Agurgarria:

Ba-ete daki Jaungoikoak Bera baztertuko dodana?

Arduraz naukan gai bateri buruz idatzi gura dautzut gaur. Len esandako arazoaz nabil. Gai eztabaidagarri onetzaz, sarritan aztertzen dot nire katoliku egoerea zelakoa izan bear dan, baiña nire gogamenetan ez dot iñoz aurkitu nire itaun onentzat erantzun betegarririk. Orregaitik, lenengo burura etorri jatana esan gura dautzut, nire eritxiz itaunik garrantzitsuena auxe dala: Giza-izakiak, lenengotik ontzat artzen garan ala ez Jaungoikoaren aurre-aukeramenaren (predistiñaziñoaren) eragiñez ala geroago gure bizitzan zear Jaungoikoaren aurrean geure egoerea ebazten dogunean artzen dauan erabagi ori.

Jaungoikoak ez gaituala beartuten indarrez beragan sinisteko eta bera maite izateko, orretarako aukera osoa daukagula baietza edo ezetza emoteko, ba-dakigu. Orrek esan gura dau geuk erabagiten dogula geure naimenaren aukeraz Jaungoikoaren alde egon ala ez.

Ori guztiz argi ikusten dot, baiña pentsau ta pentsau jarraitzen ba'dot arazoa eztabaidagarri biurtzen jat.

Gauzea obeto adierazo dagitzudan, Judas'eri jazorkoa aitatuko dot. Itun Barriak baten baiño geiagotan diñosku Jesus'ek ba-ekiala bere nekaldiaren eta onen eragilleen barria. Nik ortik ateraten dot Judas eta beste gizonak Jesus'en bizitzan aukeratuta egozala txarren egitekoa

beteteko. Euki ete eban ba Judas'ek aukeraren bat Jesus saldu ebana baiño beste norki bat izateko? Aldi aretako Jesus'en arerioak izan ete eben aukerarik Jesus'en alde edo Jesus'en aurka jokatzeko aukerapena egiteko?

Ez eben euki. Jesus'en arerioak egin bear eben egitekoa, notin batzuk egin bear eben, Kristo'ren kurutzeratzea ta berbizkundera jazo-bearrekoak ziran-eta. Eta antzera esan bear Jesus'en alde egozan notiñai buruz. Geiago oraindiño: Nik neuk ezin erabagi neike Jaungoikoaren aurrean nire egoerea baiezkoa ala ezezkoa izango dan?

Burura jatort, ni Jaungoikoa dagoala sinistera eldu ba'naz, Berak aurrez erabagi daualako dala, eta Berak baiño ez dakiala sinismen oneri eutsiko dautsadan ala albora botako dodan.

Gaiñera beste au be esaten da: Jaungoikoak ezagutzen eta maitatzen gaituala gu jaio baiño lenagotik be. Berak ba-daki zelakoa izango dan gure egoerea bere aurrean. Olan izanda be, nik baietz esatea erabagi neinke.

Ez dakit nire itaunak egokiak diran. Bear ba'da, artuko daben erantzuna bakana izango da, baiña nik garrantzi aundikoa ta arduragarria deritxat.

Agurrik beroenak eta eskerrik asko zure laguntzagaitik. Zure ikasle Cristie.

LETONA'K EUSKERATUA

### IRAGARRIA?

Luzaro egon naz lauki aren aurrian,  
aztiro so-egiten dau neure begiak.  
¿Gorengotariko margolaria?  
Ezin dot nik esan, baiña biotzian  
Itxartu ta jagi da gomutea.

Goien ildegia  
burdiñezko atiak odeien artian  
ikusten dira.  
Zerua ubelduta, odeiak, gorriak  
gero ta geiago illundutuak.  
Dana da illuntasun ekaitzen aurrian.  
Berago soluak mendi aldapean,  
eta danetan elduta, garia;  
galburu zuriak: buruak astunak  
makurtzen dira.

Gari buru onek, ain beste ta ain beste...  
Olantxe gastiak kalia betetzen

estututen ziran, Aberri-Egunan.  
Zubek gari buru elduta zarie  
ezuko gastediaren irudipena.

Gariak ba dagoz etxera begira.  
¡Jaungoiko lastana! Etxerik eztago...  
Bakarrik an goien dago ildegia!  
Otz-ikar gogorak arrapatzen nau  
azurretarano, uda izan arren;  
alaya ta poza iges egin dabe.  
Biotz tximurturik neure barruan.

Uxatuten dodaz oldozpen itunak.  
Adiskide billa iradun nua.  
Biar dot benetan laguneren yarduna.  
Eta alan aztintza, bein, aitzu neban.

UTARSUS